

## **ELKARTE ETA KOLEKTIBOETAN GENERO BOTERE HARREMANAK LANTZEKO SAIOAK**

---

Prozesu honen helburua erakunde, elkarte edo kolektibo mixtoetan generoagatik dauden botere harremanak, parte hartzearen desorekak edota jarrera eta eraso matxistak ikusarazi, kolektibizatu eta hauek orekatzeko edo deuseztatzeko baliabideak eskaintzea da. Horretarako, lehenengo bi saioak espazio banatuetan egitea eta azkeneko saioa elkarrekin egitea proposatzen dugu:

### **EMAKUMEEKIN AHALDUNTZEA**

**(4 orduko 2 saio)**

Lehenengo saioan kontzientzia hartzeko ariketak egingo dira. Zer suposatu dit nire bizitzan emakume izateak? Eta zer suposatzen dit emakume izateak elkarte honetan? Zein da bizi dugun errealitatea? Noiz nago boteretua eta noiz sentitu naiz deseroso, gutxietsia edo erasotua? Bigarren saioan gure buruak indartzeko eta ahalduntze indibiduala eta kolektiboa lantzeko ariketak egingo ditugu. Elkarte barruan ematen diren jarrera naiz eraso matxistei limiteak jartzeko estrategiak landuko ditugu eta emakumeen arteko aliantzak eta elkartasuna indartzen joango gara saio hauetan zehar. Metodologikoki, ariketa asko gorpuztetik biziko ditugu emozioei tartea emanez, esperientzia pertsonalak partekatzeko aukera egongo da lantaldeka edo plenarioan eta irudimen gidatuak erabiliko dira, besteak beste.

### **ELKARREKIN AURRERA**

**(4 orduko saio 1)**

Lehenengo partean emakumeek eta gizonek elkarte barruan generoagatik bizi dituzten kezkak, galderak edo eskakizunak modu anonimo eta kolektiboan konpartitzeko espazioa sortuko dugu eta honetaz guztiaz modu seguru batean hitz egin ahal izateko espazio segurua sortuz. Bigarren partean, bileren demokratizaziorako eta parte hartzea orekatzeko tresnak eta baliabide praktikoak azalduko ditugu eta bide horretan hartuko diren konpromezu pertsonal eta kolektiboak landuko ditugu.

### **GIZONEKIN PRIBILEGIOEN LANKETA**

**(4 orduko 2 saio)**

Oinarrizko kontzeptuen erreposoa eginez eta indarkeria mota ezberdinak aztertuz hasiko gara. Teoria feministan oinarriturik, elkartean emandako egoera nahiz esperientziak elkarbanatu eta talde hausnarketa egingo dugu. Gizon gisa, zein pribilegio bizi ditugu egunerokoan? Zertaz ari gara aukera ezberdintasunaz ari garenean? Zertan datza gizonon desboteretze prozesua? Elkarte barnean parekidetasuna izateko bidean, gizonok daukagun arduraz jabetu eta konpromezuak hartzea ahalbidetuko da. Hortarako, adierazpen modu ezberdinez baliatuko gara; hitza eta idazketaz gain, gorpuzta erabiliko dugu. Emozioei lekua eman eta deserosotasuna ere gorpuztuko dugu.